Erref. kodea: LAF-208-072

Izenburua: Kantutegiaren inguruko lana

1)

Jaunak eta anderiak,

Azkenik mintzatüko zitzaitzie ziberotar bat, Eta gogoeta zunbait egin badüt lan hau hunhartü beno lehen, ez nizalakoz ez müsizient edo müsikari bat, ez jakintsün bat, ziberotar bat bürhagertzia (nabarmen) hun zela pentsatü düt, Ziberoko seme baten uhuratzeko.

Eüskal Herria maite düzienek, badakit amodio berhezi bat ekarten düziela, gehienek bederen, gure "Lurralde berexiari", heiñ bat ezagützen düzien ber.

Gure "Lurralde berexia"-z, aitzineko aste batez, Zeruko Argian irakurtzen nüntian herroka (lerro) dithyranbiko zunbait. Mintzaldi hunen hastian aipatü nahi dütüt, ez Gipuzkoatik edo Bizkaiatik, edo beste probintzietatik jinik (etorriak) ziradenentako, bena heben diren ene anaie ziberotarrentako, gure berexitarzüna balio handikua dela goguan har dezen, orhitüz haatik eüskaldün egiten gütian berexitarzüna dela.

Huna hitz hoitarik:

> "Zuberoko herri txiki haietan guzietan, azaltzen (esplikatzen) ez genakikean zerbait dario denari. ... Ezin zaio euskalduni Orhiko menditik Larrañera begira (Larrañerat so) pausatü eta, ametsik ez egitea... Iñun baino egiazkiago esan (erran) dezakegu euskaldunok Zuberoan: "hauxe da ene sorterria". Eta han, hau esateko behar gorririk sendi ez duena, Basaburuan eta Pettarrian bere burua arrotz atxematen duena, sinistuta egon (sinets), irakurle, hori ez da euskalduna."

Zibero huntako seme zen, Sallaberry ere, eta Ziberoko kulturari etxekia, bena berhezkeriarik gabe. Diala ehün urte argitarazi zian libürü balius huntan X edireiten (edo aurkitzen) dügü Ziberoko ahaide (doñu) hanitx, bena ere Baxenabarreko eta Lapurdiko, bai eta Gernikako Arbola ere, hitzak bederen.

X eta oraino gehiago familian ützi dütian paperetan,

2)

Eüskal Herriko müsikaren eboluzioa

Sallaberry-ren baliuaren behar den bezala pezatzeko, eüskal-ahaiden biltzeko egin dian lanari bürüz, behar da jakin nuntik horra diren ahaide horik, zuiñ diren herrian berian (bertan) sortiak, eta zuiñ kanpotik jinak. Behar da ikusi zer müsika süertetarat tiratzen dien, ala eüskaldünek badienez beren müsika, bere lege bereziekin, popülü beltzek edo Viet-Nam-tarrek dien bezala.

Galto horik ikertü dütie barnatik, ahal zien bezaiñ barnatik bederen, Charles Bordes eta Aita Donostiak - bi müsikari jakintsün handi -. Haien lanetarik erraiten ahal dügü, larri-larria bederen (grosso modo), zer izan den eüskal-ahaideen eboluzioa.

Bi hitzez behar da beraz erran zer müsika lege edireiten (aurkitzen) den eüskal ahaideetan.

Ezagützen dütügün ahaide zaharrenak, 15-gn mendekuak (gizaldikuak) direla uste dügü. Ordian, eta 18-19-gn mentetara artino, itsas-alde huntan gehienik hedatürik zen müsika, gregorianua. Hunen legiak llabür-llabürra: melodiarentako zortzi modo, bakotxak bere koloria emaiten beiteio ahaidiari; ritmo aldetik, 2 eta 3 denboratako neurriak edo mesürak nahasteka.

18-gn mentetik hunarat sartzen da müsika modernua; hunen legiak: bi modo bakarrik, majora eta minora, koloria ahaidiari emaiten diena. Ahaide bakotxian ber ritmua has eta ürhent, bi denboratakua edo hiruetakua.

Eüskal-ahaideetan zer edireiten dügü ? Bi müsika hoitan izkiriba ditazken ahaidiak, bena ere bi müsika horien legiak nahasten dütien kantoriak. Eta gehiago dena, eüskaldünek badie beren kantatzeko manera. Ez dütie ahaide baten nota güziak, müsika baten legen arabera eman behar litzatekian goratarzünian emaiten, xüxen; edo dira goraxago, edo apalxago.

Huna etsenplü bat."Bazterretik bazterriala" hasten den kantoria bildü die Charles Bordes eta aita Donostiak, bedera maneretara. Huna zer dion ahaide horrez aita Donostiak:

> "La modalité, dans la chanson de Bordes, est mêlée: par sa tonique elle serait dü 8ème mode,

mais l'ambiance est en la (4ème mode) quarte-dominante de la tonique mi.

Mon chanteur, de son côté, la transformait en mode mineur moderne... Mais vers le milieu, mon chanteur dérivait au mode majeur. La chanson, en plus de ses variantes dans le même mode, avait complètement modifié sa modalité.

Eta ritmuaz beste bitxikeriarik erraiten dü. Huna kantore hori Chuburu-k kantatürik. Zihaurek jüjatüko düzie.

"Bazterretik bazterriala"

Huna beste etsenplü bat: "Txorittua, nurat hua". Hau Sallaberry-ren libürian modo minorian izkiribatürik da. Bena eüskaldünek modo hortako 3-gn, 6-gn eta 7-gn notak berheziki batian goraxago, bestian apalxago kantatzen dütie. Etxekopar-ek kantatüko deizie.

"Txorittua, nurat hua"

Sallaberry-k bildü kantoriak

Ikusten düzie etsenplü hoitarik eztela aisa eüskal-kantore baten ahaidiaren izkiribatzia. Eta behar dügü goguan üken Sallaberry-k bere libüria hogei bi urtetan gabe argitarazirik ziala. Müsika ikasi zian, ez ofizioz eta bizipide baten egiteko, bena denboraren igaraiteko eta hortako gusta zialakoz. Ikasi zian beraz ordian haurrer eta gazter erakasten ahal zen bezala: müsika modernua. Eta bere jakitatiarekin ari izan zen kantore biltzen.

Zer ahaide süerte edireiten dügü arren haren libürian?

Lehenik aisa izkiribatzen ahal zütianak. Eta beraz kanpotik Eüskal Herrian sartü ahaidiak. Ezen eztügü uste üken behar eüskaldünek ez dütiela beren beitatik elki ahaidiak baizik maite.

Diala ehün urte, alde huntan bederen, Frantzian egin "romance" hoitarik hanitx kurri zen, eta arrakasta handia zien, eta die orano ere.

Berrogeita hamar bat ahaidetarik, 25-30-en altia frantses "romances" hoitarik dira. Bat entzünaraziko deiziet, Ziberuan egünko egünian ere ezagütienetarik: "Zü zira, zü, ekiaren paria". Amodiozko kanta bat da. Chuburu-k kantatüko deizie.

4)

Bena hortarik landa berehala, Etchecopar-i galtatüko deiot: "Zü zira, zü, ekiaren pare". Ber sendimentien mintzarazteko, ikusiko düzie zer eüskal-gozo barnagua edireiten dügün bigerren kantorian.

"Zü zira, zü, ekiaren paria"

"Zü zira, zü, ekiaren pare"

Bi kantore hoitarik, lehena Sallaberry-k ekarten dü, bigerrena ez. Bena eüskal-ahaide zaharrak ere badütü libürü hunek. Hogeiez goiti kuntatü dügü. Zunbait haatik eztakigü sobera ahaide arrotzetan ala Eüskal Herrikuetan klasatü behar dütügün.

Bena segür gira "Txoriñuak kaloian" ahaide zaharra dela. Kantore horren müsika bi lekütan edireiten da Sallaberry-k beno lehen izkiribatürik: Pascal Lamazou-k "Chansons de Pyrénées" libürian, eta de la Villeheloi anderiak Sallaberry-k beno urte bat aitzinetik agerarazi zian libürian. "Cette chanson a un caractère étrange", dio Sallaberry-k. "Caractère étrange" segür müsika modernua baizik ikasi eztianarentako. Bena segür niz beste ahaiderik ere, hori bezain "étrange" baziala entzünik merkatü arratsetan, Mauleko ostatietan.

"Txoriñuak kaloian"

Horrek badü egiaz adesa aipatzen günian gregoriano kozia. Beste bat ere badü Sallaberry-k, ber gregoriano koziarekin: "Ixkerraren zamaria", bena hiru denboratako ritmo modernuan izkiribatürik. Eta ez die bi kantoreek egiterik batere; lehena sendimentüzko kantore bat da, bestia trüfatzeko kantore bat.

Beste Sallaberry-ren ahaide zaharrak müsika modernuan izkiribatürik dira. Bena ageri da üsian melodiatik kanpo den zerbait erakutsi nahi diala, nota txipi zunbait haborokin ezarriz; hori eüskaldünen kantatzeko manera. Güziek ezagützen düzie "Adios, ene maitia"; ahaide arrotz bat da, eta Sallaberry-k dakar."Agota"-ren kantoria ber ahaidian kantatzen da. Bena eztü Sallaberry-k ber manerala izkiribatü, ezpeitü "Agota"-ren ahaidia ber manerala entzün. Etchecopar-ek kantatüko deizie, eta ber denboran pentsatüko düzie "Adios, ene maitia"-ri;

5)

<u>Sallaberry-ren mereximentiak</u>

Holako kasü handiarekin haiñbeste ahaide bildüz, eta haiñen gazterik, Sallaberry-ren mereximentiak ez dütügü aski goretsiko. Ez balü lan hori egin, zunbat ahaide balius orai galdürik, heltü bada. Ala beste nurbaitek bildüko zütian ?

Jadanik aipatü deiziet de la Villehelio anderia. Ager-arazi zütian 12 ahaide, hoitan kantika bat (interesenta), zortziko bat "Ikusten duzu goizean"-en ahaidiarekin, eta Ziberoko maxkaradetako marxa-ren sonia. Baratzen zaizkü bederatzü kantore. Bigez bestiak Sallaberry-ren libürian dira. Bazakiana ote de la Villehelio-k ere bildü zütiala zazpi kantore horik ? Eztügü erraiten ahal.

Horik dira: Txoriñua kaloian,
Argia dela diozü,
Iruten ari nuzu,
Xarmagarri bat badit,
Goizian goizik jeiki nündüzün,
(ahaide paregabia);

eta beste biga:"Argia dela diozu", bena ez Sallaberry-ren ber ahaidian, eta "Agota". Bena heben gaiza batek ez gütü apür estonatü: de la Villehelio-k "Agota" kantoriari ezarri deio Sallaberry-k Berreteretxen kantoriari emaiten deion ahaidia. Eta erran behar dügü ahaide hortan ez dügüla sekülan entzün Berreteretxen kantoria baizik. Aldiz, bai "Agota", bai Berreteretxen kantoria untsa ezagütürik dira, bena beti beren ahaide bereziekin emaiten dira. Huna Berreteretxen ahaide hünkigarria. Sallaberry-ri zor deiogü balinba orano herrian bizi izan dadien.

"Berreteretxen kantoria" (Chuburu)

Entzün düzien ahaide eder hori bezala, Sallaberry-k ez bazütian bildü, nun ediren egün:

Ahaire zahar huntan,
Alageraz,
Atarratze jauregian,
Beñat Mardo,
Chori erresiñula, hots emak enekin,
Chori erresiñula üdan da kantari,
Egüntto batez nindaguelarik,
Gaztetarzünak bainerabila,
Txorittua nurat hua,
Ixkerraren zamaria,
Jundane Extebe martirra,
Mendekoste pestetan

6)

Ikazketako mandoa,
Mutil gaztia,
Oi laborari gaixoa,
Orai banuazü herriti,
Plañü niz bihotzetik,
Ürzo lüma gris gaixua?

Eta eztütüt aipatzen, beharbada Eüskal Herrian baizik haboro kantatzen ez diren ahaide arrotzak:

Argizagiak zelütik,
Prima ejerra,
Ene izar maitia,
Andereño bat,
Ostiraletan duzu... eta abar.

Ikasbide bat

Zerk ekarri zian Sallaberry egün haiñen gora altxatzen dügün lan horren egitera ? Lan horren egitera, bai eta familian ützi dütian paperen izkiribüz eta müsika notaz betatzera ?

Haren denboran, eüskal kulturaren ikertzen hasten ziren jakintsün zunbait. Haien lanen berri gaztetik bazakian, eta beste hanitxek bezala, Sallaberry-k ere bere lan partia egin nahi izan dü balinba jakintsünentako. Bere libürian ezarri dütü kantoriak frantsesezko ützülpenarekin. Bena badakigü ere edizione bat egin ziala oso eüskaraz. Hortarik ageri da Eüskal Herriaren, eüskal kulturaren eta eüskaldünen amodioz ari izan dela.

Haur nintzalarik, libürü hau Ziberoko etxe hanitxetan bazen. Ezta erraiten ahal zer hedadüra üken dian. Huni esker dügü hanitxek henben, ezagütü eüskal-izatiaren argia.

Müsikaren aldetik holako lan baliusa egin dian lehen gizona izan da Sallaberry, ipar alde huntan bederen. Eta pentsa ez zela harentzat lan errexa. Orai bizi balitz, oraiko magnetofona, zinta eta tresna amiragarriekin, zer ez liro egin ! Üdüri zait etsenplü bat dela, eta eüskal kulturan sartzera kümitatzen gütiala.

Amodiozko kantuak

Lapurdin, Baxenabarren eta Ziberon.

Aditzale adixkideak, agur !

Bilintx handiaren goresterat deitu gaituzuelakotz, hemen gauden bi lapurtar hauiek benetan atsegin dugu, eta eskerrak diozkagu Donosti-Aurrezki-kutxari.

Erran gabea : Miguel Pelan Orozco jaunaren hitz goxoek barna hunkitu gaituzte, baitakigu idazle bikain horren liburuek dakarkioten omen zabala.

Bilintx, ororen iritziz, euskal maite-kantari famatuena izan da, aipatu baititu ez bertzeen bihozkadak, bainan ber-berenak, bere amodio gose-egarriak saminki oihukatuz, lotsarik gabe, halere urguri, bigun eta samurbera zegolarik.

Nahi ukan digute eskatu gure ipar-bazterretako amodiozko kantuen berri eman diezazuegun, haren ohoretan, nahiz ez diren naski Bilintx-en hein berekoak, batzu herabetsuagoak izanez, bertzeak bipertsuagoak. Gure aldetako bertsulariek ez zuten, Elizanburuk salbu, ez Aguilera-ren, ez Heine-ren, ez Becker-en ezagutza mikorik. Ez ziren alabainan hiritarrak, baserritarrak baizik : eskola guti zuten, eta Café Oriental-eko lagun ikasiak ez ziren heien ostatu arruntetarat jausten.

Laster ohartuko zarete bi gogo-moldeen arteko makurraz.

Kantua musikarik gabe, motz eta hotz legoke, bereziki hitza eta doinua elgarrekilako asmatuak izan direlarik. Poetek batu ekeiak ez litazke behin ere berexi behar. Nihaurek, neure boz kakolarekin, ez bainezaken deus ere kanta, galde egin diot Roger Idiart jaun adixkideari laguntza poxi bat. Ugaria ardietsi digu. Hari eskerrak pentsatzen dut ene hitzaldia ez dela motelegi izanen ; alderantziz ukanen dituela berenaz eskas lituzken bizia eta alaitasuna.

Gogoeta larri zenbait gaingiroki

Aspaldiko errana da, berenaz kantua bihotzetik jalgitzen dela eta bihotzetan hedatzen. Izan ere, kantu gehienak amodiozkoak dira, maitagunez gorets dezaten Jaungoikoa, aberria, itsasoa, lurra, etxea, ala jendeen arteko atxikimendua.

Bainan egun, hemen, jendeen artekoa baizik ez dugu aipatuko, gizon-emazten artekoa bakarrik, ezkontzarako bidetakoa ; ezen, gure euskal kantu herrikoietan ezin aurki ditake Meleagro edo Sappho-ren oiharzunik.

Oixtion erran duguna : gaia mugatu digute Zibero, Baxenabarre eta Lapurdiko abestietan. Badugu nahikoa : alabainan, gure ipar-alde hortan, amodiozko kantuak gaindizka baditugu. Asko bildumetan aurki ditazke. Biltzale nasaienak izan dira Francisque Michel, Sallaberry Maulekoa, Charles Bordes, Azkue, Donostia, Barbier, Dufau, Onaindia. Nihaur ere ari izan naiz bilatzen eta publikatzen. Bainan erran dezaket badela oraino multxo bat agertu gaberik.

Abesti horiek molde hainitzetakoak ditugu. Ezen heien musika biziki

desberdina da : (1).

— doinu zenbaitek erdi-aroko usaina badakarkete ;

— bertze batzuek hamazazpigarren mendekoarena ;

— parrasta batek salatzen digute lehen eta bigarren erromantismo giroetako jendeen bihotz eria ;

— eta azkenean nola ez aitor, han hemenka, zenbait aire arrotz berrien kutsua ?

Hainbertze melodi desberdinekin, ez bertsuen eta ez neurtitzen egiturak ez dituzke elgarren iduriak izan (2). Kondatu ditut 24 bertsu mota eta 16 neurtitz mota ; baditake ez nitzaien deneri ohartu.

Literatura-moduez gauza bera erranen dugu :

— zenbait kantu ipuin itxuran emanak dira ;

— bertze asko bakar-hizketa moduan, alegia norbait bere buruaz bere buruari mintzo ;

— batzuetan maitalea bere maiteari mintzatzen zaio, hunen erantzunik gabe ;

— gehienetan elgar-hizketak dira gizon gaztearen eta neskatxaren artean, bakotxa bertzearen zinezko amodioaz segurtatu beharrez.

Bixtan da maitaleen egoerak, sendimenduak eta erranak noiz nolakoak direla eta kantu batetik bertzetara arras alda ditazkela.

Argitasun larri hoik eman ondoan, xeheki ikertuko dugu gure kantuen arabera zer den amodioa, nun pizten den, zerk hazten, nola mintzatzen, zerk trabatzen, zerk hausten, nola ezkontzarat heltzen.

1. Zer da amodioa ?

Gure kantuetan ez du fama onik bana-bertze. Batek dio (3) :

Amodioa zoin den zoroa mundu guziak badaki.

Bertze batek deitzen du "sukar malina" (4) :

Eri nuzu bihotzetik, erraiten dautzut bi hitzez :
Sukar malinak hartua nago, zu ez izan beldurrez ;
Otoi, otoi, zuk senda nezazu hil ez nadin xangrinez.

Asko maitale auhenka ari dira, zozotuak bezala dabiltzala, amodioa dela kausa, loa eta jana galdurik, beren maitea beti gogoan (5) :

Egun oroz, goizetan, arratsetan,
Beti nago pena doloretan :
Ezin dezaket jan, ez eta ere edan,
Ez dakit zer dudan :
Gaitz handi bat da ni baitan ;
Ez naiteke ni bizi gisa hunetan !

Eta huna bertze mutiko baten deiadar samina (6) :

Planu niz bihotzetik :
Gaitza zer düdan ez dakit,
Trixtezia batek hartürik !
Enüke axolarik,
Balitz erremediorik
Ene gaitza senda ahal lironik ;
Ezta mündian barberik, bat beizik
Ene gaitza zertarik den ezagützen dianik :
Eta hura berantetsirik
Baniagozü, gaixoa, trixterik !

2. Maitalek nun egiten dituzte ezagutzak ?

Mutiko batek aitortzen du elizan ohartu zaiola neskatxa bati : musika "Si j'étais roi" opera-puska batetik hartua zuen Elissamburu-k (7).

Igande bat zen ikustean
Nik aingerua lehen aldikotz :
Haren itxura bihotzean
Geroztik hor dut eta betikotz !
Meza zen ari aldarean,
Belauniko zen otoitzean.
Gero behatuz zeruari
Agur ezti bat egin zuen
Aingeru bere lagunari
Ordutik maitatu nuen...

Badira, ehorzketa batzuetan edo berdin hil-harrietan elgar aurkitu baitute (8) :

Bere aitaren hobi ondoan lore aldatzen ari zen ;
Errespetuki alde hartarat ixilka hurbildu nintzen ;
- Agur, Katixa, huna non noizbait bakarrik zaren aurkitzen :
Aspaldi danik ene bihotzak zaitu kartsuki bilatzen.

Maizago, lehen eleak merkatu, feiria, dantza edo ezkontza batzuetan gertatzen dira :

Ortziraletan duzu Garruzen merkatu
Ene maite pollita han nuen kausitu. (9).

Bertze kantu batek dio (10) :

Mariluxen ezteietan, biak mahain berean,
Jan-artetik elgarri so plantatu ginenean,
Sentimendu bat piztu zen kolpez gure artean.

Hirugarren batean hauxe aurki ditake :

Azken bestetan egin nituen izarraren ezagutzak. (11).

Askotan iturri inguruetan mutiko gaztek atxemaiten zituzten emazte gaiak. Orai ura etxerat heldu zaie. Huna neska batek kondatzen duen ixtorioaren hastapena (12) :

Goizean goiz jeikirik argia gaberik
Urera joan ninduzun pegarra harturik
Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik
Heia nahi nuenetz urera lagunik...

Erran behar dugu bertze buruz-bururik gerta zitakela. Ohartuko zirezte gure amodiozko kantuetan gauak bere ilargi-izarrekin leku handia badaukala.

Alabainan hainitz gizon gazte maiz gauak gauari amoros dabiltza, neska batzuen leihoetarat harrixka botatzen, heien iratzartzeko eta heiekin amultsuki mintzatzeko. Askotan heien aitamen ixilik, bertze batzuetan nehoren beldurrik gabe.

Noiz behinka neska etxetik ateratzen da mutikoaren bidera, neskak edaria ekartzen duela, mutikoak kokil edo bixkotxa. Mutikoa nunbait zain dagolarik eta neskak opor egiten, erraiten ohi da mutikoaren gatik "lastoa jan" duela, hots, janari idorra. Behar da ohidura hori ezagutu, kobla hunen ulertzeko (13) :

Ene bihotz gaixoa etentzera doa :
Ezin jasan dezaket bardako laidoa,
Maiteak jan-arazi baitzautan lastoa.
Bera dut deitoratzen, ez haren arnoa !

3. Zerk ditu neska-mutikoak elgar ganatzen ?

A/ Itxurak

Huna mutiko baten ustea alaiki kantatua (14) :

Gizon gazteak ezkontzeko behar ditik lau gauza :
Lehen-lehenik iduria, alegera bihotza,
Dirua frango sakelan eta bizitzeaz ez lotsa.

Horietarik hiru baditut, laugarrena dut falta.
Bai iduria badut eta alegera bihotza :
Dirurik ez dut, bainan ordainez bizitzeaz ez lotsa !

Bitxi bada ere, euskal kantuetan ez dute neskek aipatzen mutikoaren itxurarik, hiru kanturetan xoilki haren "ile horia" !

Gizon gaztek aldiz maiz aipu dute maitearen kanpoko kanorea : goresten haren begiak, begitartea, ezpainak, esku xuriak, boza, eztitasuna. Bertzerik ez.

"Maria" deitu kantuan Elissanburu-k xehetasun gehiago badakarzki (15). Nahiz ez duen Bilintx-ek bezalako emazte-pintura edo marrazki luzerik.

Aztal biribil eta zangar hertsia,
Eskuaren beteko zango bihia,
Ttiki-ttikia.
Golko bat aberatsa, lerden gerria,
Eme begia :
Nolako panpina den, horra Maria !

Mariak baratzera badu berea,
Udan eta neguan lorez betea
Errek'artea
Bere loren artean erdi-gordea,
Gaixo maitea,
Bera da pollitena, hango lorea !

Euskaldun bertsolariek nahiago izan dute erran bakarrik anderez pollitak, ederrak, xarmagarriak, maitagarriak, xuri-gorriak direla, sinbolo zenbait eratxikiz : hegaztin, argizari eta lore.

Hegaztinetan aipatuenak dira : usoa, urzapala, arroketa, eperra, ainara, errexinoleta ;

Loretan : lilia, arrosa, julufria ;

Zeruko argizarietan : izarra, iguzkia, ilargia.

Sinbolo horiek Chaho-k, Peillen-ek eta berezikiago Haritschelharre-k ikertu dituzte, xuxen berexi nahiz bakotxa zeri dagon (16).

Haritschelhar-ek berak bere dotorgorako liburu nausian hamabi horri-alde handi bete ditu gai hortaz. Ez nitzaio hemen tiletez tilet jarraikitzen ahal, hitzaldia luzegi bailoakegu.

' Haritschelhar. Zuhaitz aberats hortarik huna bizpahiru aldaxka bakar.

Izarra zer da ? Segur argi distirant lilluragarri bat da, gau-ilunbeen erdian ; bainan han nunbait zeru-zolan itzatua, urrun eta hotz. Izar-izena badoako beraz neskatxa eder xoragarriari, maite duen gizon gaztearen aintzinean burgoi eta handius dagolarik, gibelkor eta etsigarri, hots, ezin hurbildua, bere baitan hetsia.

Lorea, berriz, landare atsegina, lurrean erroak egina, kolorez begien xarmatzale, usainez bururat emaile, berenaz bil-errexa, nun hesi batek inguratzen ez duen, edo arrosa bezala elorriek gerizatzen. Lorea beraz ongi erraiten zaio maite pollit eztiari, ez duen ber mutukoarekilako Heraberik erakusten, nahiz kasu zenbaitetan aitamek hurbildik zaintzen duten.

Hegaztin edo xoria, aldiz, eskuaren beteko izaite bizi, bigun, beroa, kantari alai eta hegaldari xarmanta, hala beharrez bela txari edo ihiztariar ihes egiten dakiena. Itxura dezake ezin hobeki maite boz ezti, jite gurbil, bihotz beratza, maitalearen saretarat bil dadin ala ez. Hegaztinetan, oilandak itxuratzen du gaizki ibili den neskatxa (17) :

Oilanda gazte moko fier bat gure herrian badugu :
Hegalpetik lumaño bat gaixoak galdu ez balu,
Mundu hunetan ez zen izanen harentzat aski estimu.

Uso apal edo uso-tortoila aldiz erraiten zaio neskatxari, gizon gazteak bere gisa uzten duenean bakar-bakarrik bihotz-minez etsiturik :

Urtxapalaren malürra
Galdüz geroztik lagüna,
Trixte da beti ere bere bihotzetik :
Ezpeitü egündano maitatü bat beizik
Maitatü bat beizik. (18)

Errexifiolak edo urretxindorrak, alderantziz, adi-arazten du ongi bururatzen den amodio osoa, maitasun zorionez betea (19).

> Xori errexifioletak ederki kantatzen.
> Bazter guziak ditu xoratzen.
>   Bard'arratsian
>   Sasi batian
>   Biga baziren :
>   Eder ziren
>   Xarmant ziren
>   Manera oroz
> Eta elgarren hainitz agrados.
>
> Bat arra zuzun eta bertzia emia.
> Ez mirakulu parekatzea !
>   Han lehen ere
>   Dudarik gabe
>   Ikusi ez balu,
>   Arra hura
>   Ez zen joanen
>   Sasi hartara,
> Emia ez balitz jin bid'erdira !
>
> Eta orduan berean, muntsu zen emia
> Sasi handian barna sartuia ?
>   Hor apaindurik
>   Ta lumaturik
>   Bere papoa
>   Kukurusta
>   Harroturik
>   Jarri zenean,
> Umez orroitu zen, ber'ohantzean !

B/ Arrazoinak

Gizon gazteak maitearen biltzeko

zer arrazoin ateratzen dion

Batek etxea du gogoan, eta etxekandere baten beharra, barneko lanen kudeatzeko eta familiari alaitasun berri baten ekartzeko :

> Aitarik ez dut eta ama ere zahartu :
> Norbaiten beharra ere etxian badugu ;
> Zuk hala plazer bazindu, nahi zinduzket zu ;
> Ene desira zer den orai badakizu ! (20)

Bertze batek bere ontasunez egiten du espantu, hetan truk neska erosi nahi balu bezala : aipatuko diozka Ameriketarik ekarri omen dituen urre, zilar, diamant saskitarak ; bere lurretan dauzkan zazpi eiherak ; nunbait eraiki dituelako jauregi ederrak, eta abar.

Adibidez : (21)

> Nik baditut mortuetan ardiak artzainarekin,
> Itxasoan hamar untzi beren marifielekin,
> Katalufian hamar mando zilar monedarekin.

Askotan gizon gazteak deitoratzen du amodioak emaiten dion osasun gaixtoa, eta maitea otoizten du sendatzale bezala, urrikal dakion bere ezin-bertze hortan. Jadanik entzun ditugu auhen eta barber-galde horiek.

Zenbaitek itzul-mitzulirik gabe aitortzen dituzte beren gorputz-griñak :

Landan eder iratze :
Behi ederrak aratxe :
Zu bezalako politetarik desir nuke bi seme. (22)

Gutiz barka !

4. Amodioari gertatzen zaizkon trabak

Maitasuna nolazpait sorturik ere, aurki dezake bere bidean eragozpen eta oztopo.

Frangotan burasoek beren haurra nahi dute norbaiten ganik urrundu, odola edo arraza dela kausa. Hori entzuten dugu Agotaren kantuan. (23)

Atzo norbeit izan düzü ene ait'ametara,
Gük elkar maite dügüla haien abertitzera.
Urrunt-araztez elkar ganik fite ditin lehia,
Eta eztitian jünta kasta agoterekila.

Osagarria ere zenbaitetan estakuru ederra dute, gustukoa ez dutenaren baztertzeko :

Aitak dio semeari :
"Utzak, utzak, neska hori :
Zendako duk etxen hori beti delarik hain eri
Utzak, utzak neska hori, gostarik ere zer nahi." (24)

Maizago fortunaz dute axola : (25)

Alaba, ago ixilik :
Ez dun Jakesen beharrik :
Sakelan ez din dirurik, ez irabazteko lanik.
Nahi duna bizi barurik, pilda txarrez beztiturik ?

Aitamek, kantuen arabera, zer nahi pentsatzen dute beren alaba maite dutenaren ganik berexteko.

Konparazione, herritik hastantzen dute. Huna Arbona-ko neska baten bertsua : (26)

Aita jeloskorra,
Zük alaba igorri
Arauz ene ihesi
Komentü hartara !
Ar'eta ez ahal da sartüren serora :
Fede bedera ügü,
Alkarri eman dügü
Gaiza següra da !

Halere ez dira burraso guziak beren haurren hain trabatzale agertzen.

Entzun ditzagun bi ama alaba elgar-hizketan : (28)

Ama, begira-zazu leihotik plazara :
Ni bezalakorikan plazan ba ote da ?
Lai, lai, lai, tra la ra la ra lai !

Begiak erne ditu, bi zangoak arin
Hainbertze dohainekin ez nauke mutxurdin !

Mutikoen artean itzul-inguruka,
Gizon-geitzat baduzket dotzenan hameka.

Heldu den primaderan arropa xuritan
Ederra izanen naiz mahain sainduetan.

- Haurra, ahal badaite, hala izan bedi :
Lehen gure aldi zen, orai zuen aldi.

Gure euskal kantuetan, amorosek elgarren artean maiz badituzte gora-beherak : hotz-aldiak eta bero-aldiak aldizkatzen zaizte ; sendimendu goxoenen artetik, gazteak aise agertzen dira idurikortsu ; ez fida maitearen ele ederreri ; ez sinetsi nahi, bainan halere kasu egiten haren kontra entzun erran-merraneri ; hortik hasarreak eta gero berriz baketzeak: jos eta urra, urra eta jos.

Ez da harritzekorik : gure kantu xaharrak sortu ziren denboretan, gizon-gaiak eta emazte-gaiak luzaz egoiten ziren ezkontzaren haiduru.

Kantu batek dio :

Juramentu eginik duela bortz urte,
Holakorik ez nuen zure ganik uste...

Bertze batek :

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,
Erraiten zue la : ez dut bertze maiterik.

Hirugarren batek :

Nik hitza atxiki dut zazpi urtez geroz
Erreztun huni beha egun ta gau oroz...

Bortz-zazpi urte hanixko da. Anartean gauza frango pasa zitaken, eta elgar erasiatzeko parada hainitz. Huna aharra ttipi bat :

- Prima eijerra,
Zütan fidatürik,
Hanitx bagira
Oro tronpatürik !
Enia zirenez erradazü bai al'ez ;
Bestela banoa
Desertiala nigarrez urtzera !

- Desertiala jun nahi bazira,
Arren zoaza
Oi, bena berhala !
Etzitiala jin harzara ni gana
Bestela gogora
Dolütüren zaizü, amoros gaixua ! (29)

- Nitan etsenplü nahi dianak hartü
Ene malürrak parerik ezpeitü
Xarmagarri bat nik beinian maitatü
Fidatu,
Trunpatü...
Seküla jagoiti ikusi ezpanü !

- Mintzo zirade arrazu gabetarik
Eztüdala nik zur'amodiorik
Zu beno lehenik banian besterik
Maiterik,
Fidelik,
Horrez eztereitzüt egiten ogenik.

Entzun dugun kantu hortan, bertze askotan bezala, leialtasuna, fideltasuna da bereziki aipu.

Fideltasuna ez dute frantsesek gure euskaldunek bezala ulertzen. Frantsesek emazte ezkonduari galdegiten diote fidel egoitea, eta heien arrangura handia da ezkondu ondoan adarrik ez ukaitea. Gure herritarrek aldiz eman hitzari, amodio hitzari fidel egoitea neskatxa bati galdatzen diote.

Oharpen hori lehentze aipatu duena da Peillen jauna, mila arrazoinekin.

Zonbait aldiz entzuten da neskatxa bere buruarekin ezbaian ari, bi gizonen artean batto hautatu beharrean : (30)

Ai, ei, ai, ei, ai, eta
hau da dolorea !
Bi maite ükon-eta
etxekin zuiñ hauta :
Batek dizü txapela,
bestiak boneta.
Txapeldün hori düzü
oi ene bihotza !

Bertze batzuetan mutikoak lehia gehiegi erakusten du, bere maitearen ganik fagore kutun batzu ardietsi nahiz, eta aditzen da erantzun : (31)

Hire ahalkiak badik bere malezia.
Uste düka nizala herenegün sortia ?
Gaixki enplegatü dük hik hire mihia
Eta izpiritia :
Ni nahi naianak
Elizatik landa ükenen dik eskia.

Bertze batek berdintsu dio : (32)

Diozun bezala maite banuzu,
elizaz feda nezazu ;
elizaz feda nezazu eta gero zurea nukezu.

Kantuetan mutikoaren ganik jalgi titazke maitearen bortxatzeko mehatxu gogorrak ere, nahiz neskatxak badakien nola deplauki ihardork.

Zer nahi den, eztabada amoros horietaz bertzerik gertatzen zitzaien noiz behinka bibita edo buruz-buruen harietarat, kantore zahar batek salatuko digun bezala : (33)

\- Mendiak bete belarrez, begitarteak nigarrez :
Lan eginaz urriki dut, bainan probetxurikan ez !
Orai hemen nagozu sabeletik minez.

\- Ene maitia, zer duzu ? Zerk holakatzen zaitu zu ?
Ez da denbora luzia zirela penetan sartu :
Plazeraren ondotik, desplazera duzu.

\- Ogiak dira burutu, artoak ere jorratu.
Primaderan egin lana udazkenerat agertu :
Ene maiteñoari... gerria loditu.

Oraino gizon gazteak bere aitasuna aitortzen duelarik, paso... Bainan ez bide da beti hala gertatzen Arrosa buketaren kantuak salatzen digunaz:(34)

Arrosa buketa bat uztailean sorturik,
Igorri izan nion jaun hari goraintzi.
Landarea nuela haren baratzetik ;
Otoi begira zezan nitaz orroiturik.

Uste izan bainuen atsegin zukela
Bere landaretikan ukanik buketa,
Gibelat itzuli du, nahi ez zuela,
Landarerik emanik orroitzen ez dela.

Lili ederra, ongi etorri zarela !
Nik ez zaitut utziko jaun harek bezala,
Freskorik bai haziko nere bularrean,
Deitzen zaitudalarik haren izenean.

5. Ausarkeriak

Ohartu zirezte zoin pollliki adi-arazten diren gauza horiek oro, urrundik bezala, hitz-erdika. Maitalen arteko linburkeriak ez dira ardurenean xeheki aipatzen, salbu-eta laidozko edo trufazko kanta batzuetan, tobera-munstra eta holako nausa-bideen karietara. Etxahun Barkoxe-ren obretan kausi ditazke zenbaitzu : orduan ere sinbolo batzuez erdi-estaliak daude ahalgekizunak, arraina, aingira, hegazterren-isatsa, hegalpeko luma aipatzen direlarik. Gehienetan zirtoen jeinu jostagarriak haizatzen bezala ditu esondatu zarpailkeriak, hego xuriak hedoi beltza ohiltzen duen bezala.

Nork ez du ezagutzen Etxahun zaharraren lumatik ateraia den Maria Solt eta Kastero-ren ipuina ? (35)

Maria Solt eta Kastero,
Bi amoros zahar bero,
Hirur-hogoi-hamarna urtetan hartu die amorio
Kastero jelostu gero, Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solt dua nigarrez
Izorra dela beldurrez
Barnets-Bordako anderiak kontsolatü dü elez :
Emazte zaharrik ükipü agitzen eztela ez.

Maria Solt-ek arrapostü :
- Santa Elisabet badüzü :
Saintü zahar bateganik ükipü agitü düzü ;
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.

- Kastero ez düzü saintü,
Sobera burhauti düzü
Elizalat juan eta taharnan egoiten düzü
Kastero dena gatik saintü, Maria Solt, antzü zira zü.

Horrek ez du erran nahi ez dela euskaraz aurkitzen ahal, kantu gizen gordinagorik. Egungo egunean ahantzixeak dira. Lehen, bakar batzu baziren Frantziako kazernetan usatu kantore zikinetarik guti edo aski aldatuak. Ez dut uste behin ere publikatuak izan diren. Funtsean, ez zuten merezi ere, ene gustuko.

Ezagutuena zen Baxenabarreko xoko batzuetan hitz hauiekin hasten zena : "Zer ari zira, amaso, hola beti guri so ?" Kondatzen zuen nola atso baten baratzean eta haren leiho-pean bi neska-mutiko parekatzen ziren : bertsuetan ez zen poesia izpirik. Ez dut haren kopiarik atxiki. Halere, ez baita hemen umerik, etxenplu gisa. Ogi-egile andere baten kontrako bertsu batzu irakurriko dauzkitzuet, barkamendu galdeginez heien ozarkeria gatik. (36)

<u>Bolanjera edo andere okina</u>

Guti gostarik bildurik, sosak baditu okinak :
Baditu, aitortu daizkit, ez du lotsarik kokinak.

- Diru hoik nundik ditutzu, anderetan xarmantena ?
- Meraren moltsa joritik, usu heldu baita hunat.

Soldado ergelak ere jin dira labe huntara
Bainan gerlariak baino nahiago dut jaun mera.

Jaunxkilek ele pollitez nahi ninduten xoratu ;
Ele pollitek ez dautet bihotza nehoiz hunkitu.

Fraile bat ere jin zautan lili buketa eskuan,
Bainan lorez asetzeko ez nintzan sortu munduan.

- Ni, anderea, ez nuz ez jaun mera, ez soldado,
Ez jauntto, ez eta fraile, bainan xoilki okin bero.

- Erran duzu "okin bero" : zer diozu hitz horrekin ?
- Anderea, jitez nuzu jende amorosen okin...

- Ez dut nehoiz egun arte hitz bitxi hori entzuna :
Nola ofizio hortan deramazu zure lana ?

- Lagun har banindezazu, artoski orra nezake
Zure labore maitea, segur kontent baitzintazke.

Gauaz ere hor nindaike beti zure zerbitzuko,
Labe haga esku-pean behar orduz labatzeko.

Zuk bederen badakizu ozarki adi-arazten
Ene bertute flakotik zer duzun igurikatzen.

Halere nahiago dut ene betiko jaun mera,
Ixil-ixila baitaki nola ni diruz ohora.

Horra nola bolanjertsa asetzen zaikun ohorez
Okastaturik nitzaio kolpez itzuli bizkarrez !

Ihizi onak biak ere !

6. Despegidak

Horiek hola, kantu haintzetan ikusten dira maiteak, elgar ezin adituz, elgarretarik berexten, nigarra begian edo hasarrez. Huna nola Milafrangako neska batek despegitzea duen bere ohiko gizon gaia : (38)

Arrosak eder botia, ederrago du lorea :
Lehen bertzetan ibili-eta, orai niri gortea ?
Zoazkit begien bixtatik, parabolez betia !

Holakoetan, neska balinbada baztertua, herraz eta gorrotoz urruntzen da, mendekatzeko xedearekin, mutikoari lore pozoindatuak igorri behar badiozka ere. Gizona bidalia izan bada, zenbait aldiz lehen egunetan mindurik dago, hiltzerat ari dela iduri.

Bainan gizon gehinak ez dute burua galtzen, ez eta maite izanaren alderako malezia handirik atxikitzen.

Arrunztarrak kantatzen zuen : (39)

Amodioa zoin den zoroa mundu guziak badaki ;
Nik maiteño bat izaki-eta, bertze batek eramaki
Zainko maiteak gerta dezala enekin baino hobeki !

Hori da hori, karitatea !

7. Ezkontza

Beharrik, ez dira amodio guziak hausten, ez itzaltzen. Gehienak ezkontzarat heltzen dira, lege den bezala

Bainan gazteak ezkonduz geroztik, gure euskal kantuek ez dute gehiago heien amodioa guti baizik aipatzen.

Izaitekotz, eztaietan errespetu handirekin kantari on batek jaun-andere esposak goresten ditu, Ohitx, Ligueix edo Etxahun Irurikoaren bertsu famatu batzuez.

Huna Ziberon maizenik emaiten diren kobletarik zenbait : (37)

Oihan beltxian zuiñen eder den osto berdia jeikiten :
Han entzün dütüt egün goizian txoriak kantüz erraiten,
Bi bihotz gazte amodiuak egün dütila jüntatzen :
Boztariotan sartü niz eta orai hasten niz kantatzen.

Espus-espuser, ororen partez, uhure eta goraintzi :
Egün düzien amodiua bizi zideno ez ützi !
Nahigabetan parte har eta plazerak ez berantetsi :
Irus izate ederrenian nahi dügü ziten bizi.

Espus jaunari ele bat bera, bürian dezan edüki :
Lagüntto horri amodiuaz beti bihotza eraiki ;
Zaharraguer uhure eta haien abiser jarraiki,
Familiako bake hun baten gozatzeko alkarreki.

Espusa gazte baten erhian zuiñ eijer den erraztüna !
Harek beitio mutil gaztier : "Etzitaiela ingana :
"Senar hun baten edireiteko egün ükhen düt fortüna,
"Hari emanik bihotza oso, bai eta gaztetarzüna."

Euskal-herrian, orotan bezala, badira ezkontza hautak, bertze batzu onak edo bederen jasangarriak. Bertsulariek bakean uzten ohi dituzte.

Hargatik, familietan zerbait eskandala gertatzen zelarik, lehenago koblak ateratzen zituzten.

Adibidez, itsusi zaukaten gure arbasoek, etxeko nausia, etxeko andereak gaizki erabiltzea.

Berrondon holako zerbait pasatu zateken duela ehun bat urte, ezen bertsu hau gelditu da orduz geroztik :

Berrondoko anderia emazteki zilarra :
Kraxturutik baderama beldur gabe senarra.
Jats-ukaldika berotzen dio, hotz ez dadien bizkarra !
Etxe hortan gurtzen zaio oiloari oilarra. (40)

Ez nuke deusetan hitzaldi hau bukatu nahi familia dohakabe baten orroitzapenarekin. Hobe dugu Garaziko senar dohatsu baten bozkarioa elgarrekin entzutea, opatuz Euskal-herriko bihotz guzietan, maitasunari esker, bizi dadin bakezko alegrantzia oso bat. (41)

Ene andrea, andre ttipia
Bainan emazte garbia :
Xoriak sasian
Erne kantatzian
Bozkariotan da
Ai ene andre ttipi-ttipia
Gu guzien iguzkia !

Jaun andere aditzaleak, erranak erran, eta gaizki erranak barkatu. Gau on !

P. LAFITTE.

1976-eko Apirilaren 5-ean
Donostian emana

OHARRAK

(1) MADINA, De Musica vasca, p. 88.
(2) HARITSCHELHAR, Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun, 2-ème partie, pp. 379 - 388 ; 414 - 507.
(3) K.K.K. (Kantu, Kanta, Khantore) p. 71.
(4) K.K.K. p. 66.
(5) K.K.K. p. 82.
(6) K.K.K. p. 112.
(7) Kantuz, Cahier.
(8) Cahier manuscrit de St-Palais, p. 22.
(9) K.K.K. p. 203.
(10) Cahier de St-Palais, p. 15.
(11) K.K.K. p. 71.
(12) K.K.K. p. 88.
(13) Cahier de St-Palais, p. 18.
(14) K.K.K. p. 181.
(15) Las cien mejores poesias de Amor, de Onaindia, p. 94.
(16) CHAHO, Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan (1855), 2º vol. pp. 188 -189 ; PEILLEN, dans "Gure Herria" 1962, pp. 74 - 90 ; HARITSCHELHAR, Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun, pp. 279 - 294.
(17) K.K.K. p. 201.
(18) K.K.K. p. 74.
(19) K.K.K. p. 58.
(20) K.K.K. p. 68.
(21) Flor de canciones vascas, p. 101.
(22) Las cien mejores poesias de Amor, de Onaindia, p. 40.
(23) SALLABERRY, p. 119.
(24) Cahier de Sare, p. 26.
(25) Cahier de Sare, p. 29.
(26) Cahier de Sare, p. 32.
(27) K.K.K. p. 102.
(28) K.K.K. p. 69.
(29) K.K.K. p. 114.
(30) K.K.K. p. 121.
(31) K.K.K. p. 109.
(32) K.K.K. p. 120.
(33) K.K.K. p. 103.
(34) K.K.K. p. 76.
(35) Las cien mejores poesias de Amor, de Onaindia, p. 70.
(36) Cahier fin du XIXº siècle , p. 29.
(37) Copie d'Etxahun-Iruri.
(38) K.K.K. p. 66.
(39) K.K.K. p. 71.
(40) Cahier de Sare, p. 44.
(41) K.K.K. p. 83.

Bibliographie

Fr. MICHEL, Le Pays Basque, F, Didot, 1857.
J.-B.-D. SALLABERRY, Chants populaires du Pays Basque, Bayonne, 1870.
Ch. BORDES. La musique populaire des Basques, in La Tradition en Pays Basque, Paris, 1899.
J. de JAURGAIN. Quelques légendes poétiques du Pays de Soule, ibidem, 1899.
R.M. de AZKUE. Cancionero popular vasco, 1922.
P. DONOSTIA. Euskal Eres-sorta, 1921.
Collection "GURE HERRIA" (Barbier-Dufau-Donostia) 1921 et sq.
R. GALLOP. Vingt-cinq chansons populaires d'Eskual-herria, Bayonne, 1928.
P. LAFITTE. Kantuz, 1940 ; Errepikan, 1942.
P. LAFITTE et P. ETCHEMENDY. Kantuz noté, Bayonne, 1946.
L. DASSANCE et P. LAFITTE. Kantu, Kanta, Khantore, Bayonne, 1967.
D. PEILLEN, revue "Gure Herria" 1962, pp. 74-90 "Amodiozko Baratzetan".
J. HARITSCHELHAR. Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862), Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXº siècle, Bayonne, 1969.
P. JORGE de RIEZU. Flor de Canciones populares vascos. Buenos-Aires, 1948.
F. de MADINA. La Musica vasca, con conferencia del Padre Donostia, Como canta el vasco, Buenos-Aires, 1943.
CAHIER manuscrit de SARE (1918).
CAHIER sans date (fin XIXº siècle).
Santiago de ONAINDIA. Las cien mejores poesias de Amor de la Lengua Vasca, 1975.

Amodiozko kantuak
Bidasoaz haraindian

Amodiozko kantuak
Bidasoz haraindian

1/ Aintzin-solasa = Bilintxen maite kantak

2/ Gogoeta larri zenbait gaingiroki

3 Amodioa zer den

4 Maitaleek nun egiten dituzten ezagutzak

Zerk dituen maitaleak elgar ganatzen

5 a/ Itxurak

6 b/ bertze arrazoinak

7 Ostopoak

Ausarkeriak kantuetan

Despegidak

Ezkontza

2 | Gure lanaren mugak, iturburuak, doinuak,
| bertsu-neurtotzen egiturak, literatura-moduak

3./ Amodio ~~a mank~~ suhar

4/ elizan, bide-bazter, merkatu, eztei, jaietan, gau beiletan

5/ lau gauzak maitekoarenak
emaztearen kanorea, nola aipatzen den, sinboloak
izar - lore - hegaztin

6/ Arrazoinak: etxea, ontasun, osasun, aitaren
beharra

7 Ostegun: [illegible] odol arraz - osasun txarra,

din ahula, aitamen debekuak, amazen artean

hitz-aldiak edo leial-ezak, duda-mudak,

mutikoen ausartziak; haur ukatu guziziaurik;

aitaren ukatzeak

Ausarkeriak laidozko eta txarfazko

hautakun

Desegiteak beren ondorioekin

Ezkontz.. Ezkeidateko hautak - Ezkontzako

eskondaden zigortzeko hautak; [illegible] senkar

dohaten baten bizkarizki hauta.

Aditzale adiskideak, agur!

Bilintx handiaren goresterat deitu gaituzuelakotz, hemen gauden bi lapurtar hauiek benetan atsegin dugu, eta eskerrak diozkagu Donosti-Aurrezki-kutxari.

[Erran gabea: Miguel Pelay Orozco jaunaren hitz goxoek barna hunkitu gaituzte, baitakigu idazle bikain horren liburuek dakarkioten omen zabala]

Bilintx, ororen iritziz, euskal maite-kantari famatuena izan da, aipatu baititu ez bertzeen bihotzkadak, bainan ber-berenak, bere amodio gose-egarriak saminki oihukatuz, lotsarik gabe, halere urguri, bigun eta samurtera zegolarik.

Nahi ukan dugule eskatu gure ipar-bazterretako amodiozko kantuen berri eman diezazuegun, haren ohoretan, nahiz ez diren naski Bilintx-en hein berekoak, batzu herabetsuagoak izanez, bertzeak bipertsuagoak. Gure aldetako bertsolariek ez zuten [Elizanburuk salbu] ez Aguilera-ren, ez Heine-ren, ez Becker-en ezagutza mikorik. Ez ziren alabainan hiritarrak, ~~[illegible]~~ baserritarrak baizik: eskola guti zuten, eta Café Oriental-eko lagun ikasiak ez ziren heien ostatu arruntetarat jausten.

Laster ohartuko zarete bi gogo-moldeen arteko makurraz.

Kantua musikarik gabe, motz eta hotz legoke, berezkiki hitza eta doinua elgarrekilako asmatuak izan direlarik. Poetek batu ekeiak ez litazke behin ere bereizi behar. Nihaurek, neure boz kakolarekin, ez bainezaken deus ere kanta, galde egin diot Roger Idiart jaun adiskideari laguntza poxi bat. Ugaria ardietsi dugu. Hari eskerrak pentsatzen dut ene hitzaldia ez dela motelegi izanen; alderantziz ukanen dituela berenaz eskas lituzken bizia eta alaitasuna.

Gogoeta larri zenbait gaingiroki

Aspaldiko errana da, berenaz kantua bihotzetik jalgitzen dela eta bihotzetara hedatzen. Izan ere, kantu gehienak amodiozkoak dira, maitagunez gorets dezaten Jaungoikoa, aberria, itsasoa, lurra, etxea, ala jendeen arteko atxikimendua.

Bainan egun, hemen, jendeen artekoa baizik ez dugu aipatuko, gizon-emazten artekoa bakarrik, ezkontzarako bidetakoa; ezen, gure euskal kantu herrikoietan ezin aurki ditake Meleagro edo Sappho-ren oiharzunik.

Oixtion erran duguna: gaia mugatu digute Zibero, Baxenabarre eta Lapurdiko abestietan. Badugu nahikoa: alabainan, gure ipar-alde hortan, amodiozko kantuak gaindizka baditugu. Asko bildumetan aurki ditazke. Biltzale nasaienak izan dira Francisque Michel, Sallaberry Maulekoa, Charles Bordes, Azkue, Donostia, Barbier, Dufau, Onaindia. Nihaur ere ari izan naiz bilatzen eta publikatzen. Bainan erran dezaket badela oraino moltxo bat agertu gaberik.

Abesti horiek molde hainitzetakoak ditugu. Ezen heien musika biziki desberdina da[1]:

- doinu zenbaitek erdi-aroko usaina badakarkete;
- bertze batzuek hamazazpigarren mendekoarena;

– parrasta batek salatzen digute lehen eta bigarren erromantismo' giroetako jendeen bihotz eria ;
– eta azkenean nola ez aitor ; han hemenka, zenbait aire arrotz berrien kutsua ?

Hainbertze melodi desberdinekin, ez bertsuen eta ez neurtitzen egiturak ez ditazke elgarren idariak izan (2) :
kondatu ditut 24 bertsu mota eta 16 neurtitz mota ;
baditake ez nitzaien deneri ohartu.

Literatura-moduez gauza bera erranen dugu :
– zenbait kantu ipuin itxuran emanak dira ;
– bertze asko bakar-hizketa moduan, alegia norbait bere buruaz bere buruari mintzo ;
– batzuetan maitalea bere maiteari mintzatzen zaio, hunen erantzunik gabe ;
– gehienetan elgar-hizketak dira gizon gaztearen eta neskatxaren artean, bakotxa bertzearen zinezko amodioaz segurtatu beharrez.

Bixtan da maitaleen egoerak, sendimenduak eta erranak noiz nolakoak direla eta kantu batetik bertzetara arras alda ditazkela.

Argitasun larri hoik eman ondoan, xeheki ikertuko dugu gure kantuen arabera zer den amodioa, nun piztten den, zerk hazten, nola mintzatzen, zerk trabatzen, zerk hausten, nola ezkontzarat heltzen.

1 Zer da amodioa ?

Gure kantuetan ez du fama onik bana-bertze:
Batek dio (3):

Amodioa zoin den zoroa mundu guziak badaki.

Bertze batek deitzen du "suhar malina" (4)

Eri nazu bihotzetik, erraiten dautzut bi hitzez:
Suhar malinak hartua nago, zu ez izan beldurrez;
Otoi, otoi, zuk senda nezazu hil ez nadin tangrinez.

Asko maitale auherka ari dira, zozoluak bezala dabiltzala, amodioa dela kausa, loa eta jana galdurik, berer maitea beti gogoan (5):

Egun oroz, goizetan, arratsetan,
Beti nago pena doloretan;
Ezin dezaket jan, ez eta ere edan,
Ez dakit zer dudan:
gaitz handi bat da ni baitan;
Ez naiteke ni bizi gisa hunetan!"

Eta huna bertze mutiko baten deiadar samina (6):

Plañu niz bihotzetik :
gaitza zer düdan ez dakit,
Trixtezia batek hartürik !
Enüke axolarik,
Balitz erremediorik
Ene gaitza senda ahal lizonek ;
Ezta mündian barterik, bat beizik
Ene gaitza zertarik den ezagützen dianik :
Eta hura beranletsirik
Baniagozü, gaixoa, trixterik !

2 Maitalek nun egiten dituzte ezagutzak ?

Mutiko batek aitortzen du elizan ohartu zaiola neskatxa bati : musika "Si j'etais roi" opera-puska batetik hartua zuen Elissamburu-k.(7)

Igande bat zen ikustean
Nik aingerua lehen aldikotz :
Haren itxura bihotzean
geroztik hor dut eta betikotz !
Meza zen ari aldarean,
Belauniko zen otoitzean.
Gero behatuz zeruari
Agur ezti bat egin zuen
Aingeru bere lagunari
Ordutik maitatu nuen ...

Badira, ehorzketa batzuetan edo berdin hil-harrietan elgar aurkitu baitute: (8)

Bere aitaren hobi ondoan lore aldatzen ari zen;
Errespetuki alde hartarat ixilka hurbildu nintzen;
– Agur, Katixa, huna non noizbait bakarrik zaren aurkitzen:
Aspaldi danik ene bihotzak zaitu hartsuki bilatzen.

Maizago, lehen eliak merkatu, feiria, dantza edo ezkontza batzuetan gertatzen dira:

Ortziraletan duzu Garruzen merkatu
Ene maite pollita han nuen kausitu (9)

Bertzo kantu batek dio: (10)

Mariluxen ezteietan, biak mahain berean,
Jan-artetik elgarri so plantatu ginenean,
Sentimendu bat piztu zen halpez gure artean.

Hirugarren bateon hauxe ourki ditake:

Azken bestetan egin nituen izarraren ezagutzak. (11)

Askotan iturri inguruetan mutiko gazteek atxemaiten zituzten emazte gaiak [Orai ura etxerat heldu zaie.]. Huna neska batek kondatzen duen ixtorioaren hastapena: (12)

Goizean goiz jeikirik argia gaberik
Urera joan nindugun pegarra harturik
Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik
Heia nahi nuenetz urera lagunik...

Erran behar dugu bertze buruz-bururik gerta zitakela. Ohartuko zirezte gure amodiozko kantuetan gauak bere ilargi-izarrekin lekhu handia badaukala.

Halabainan hainitz gizon gazte maiz gauak gauari amoros dabiltza, neska batzuen leihoetarat harrixka botatzen, heien iratzartzeko eta heiekin amultsuki mintzatzeko. Askotan heien aitamen ixilik, bertze batzuetan nehoren beldurrik gabe.

Noiz behinka neska etxetik ateratzen da mutikoaren bidera, neskak edaria ekartzen duela, mutikoak kokil edo bixkotxa. Mutikoa nunbait zain dagolarik eta neskak opor egiten, erraiten ohi da mutikoaren gatik "lastoa jan" duela, hots, janari idorra. Behar da ohidura hori ezagutu, kobla hunen[13] ulertzeko:

Ene bihotz gaixoa etentzera doa:
Ezin jasan dezaket bardako laidoa,
Maiteak jan-arazi baitzautan lastoa.
Bera dut deitoratzen, ez haren arnoa!

3 Zerk ditu neska-mutikoak elgarr[redacted] ganatzen?

a) Itxurak

Huna mutiko baten ustea alaiki kantatua: [14]

Gizon gazteak ezkontzeko behar ditik lau gauza:
Lehen-lehenik iduria, alegera bihotza
Dirua frango sakelan eta bizitzeaz ez lotsa.

Horietarik hiru baditut, laugarrena dut falta
Bai iduria badut eta alegera bihotza:
Dirurik ez dut, bainan ordainez bizitzeaz ez lotsa!

Bitxi bada ere, euskal kantuetan ez dute neskek aipatzen mutikoaren itxurarik, hiru kantoretan xoilki haren "ile horia"!

Gizon gazteek aldiz maiz aipu dute maitearen kanpoko kanorea: goresten haren begiak, begitartea, ezpainak, esku xuriak, boza, eztitasuna. Bertzerik ez.

"Maria" deitu kantuan Elissamburu-k xehetasun gehiago badakarzki.[15] Nahiz ez duen Bilintx-ek bezalako emazte-pintura edo marrazki luzerik.

Aztal biribil eta zangar hertsia,
Eskuaren beteko zango bihia,
Ttiki-ttikia.
Golko bat aberatsa, lerden gerria,
Erne begia:
Nolako panpina den, horra Maria!

Mariak baratzean badu berea,
Udan eta neguan lorez betea
Errek'artea.
Bere loren artean erdi gordea,
Gaixo maitea,
Beira da pollitena, hango lorea!

Euskaldun bertsolariek nahiago izan dute erran bakarrik anderez pollitak, ederrak, xarmagarriak, maitagarriak, xuri-gorriak direla, sinbolo zenbait erabiliz : hegaztin, argizari eta lore.

Hegaztinetan aipatuenak dira : usoa, urzapala, arroheta, epera, ainara, errexinoleta ;
Loretan : lilia, arrosa, julufria
zeruko argizarietan : izarra, iguzkia, ilargia.
Sinbolo horiek Chaho-k, Peillen-ek eta berezikiago Haritschelharre-k ikertu dituzte, xuxen berexi nahiz bakotxa zeri dagon. (16)

Haritschelhar-ek berak bere dotorgorako liburu nausian hamabi horri-alde handi bete ditu gai hortaz. Ez nitzaio hemen tiletez tilet jarraikitzen ahal, hitzaldia luzegi bailoakegu.

Haritschelharren zuhaitz aberats hortarik huna bizpahiru aldaxka

bakar.

Izarra zer da ? Segur argi distirant liluragarri bat da, gau-ilunbeen erdian ; bainan han nunbait zeru-zolan itzalua, urrun eta hotz. Izar-izena badoako beraz neskatxa eder xoragarriari, maite duen gizon gaztearen aintzinean burgoi eta handius dagolarik, gibelkor eta etsigarri, hotz, ezin hurbilduz, bere baitan hetsia.

Lorea, berriz, landare atsegina, lurrean errotik egina, kolorez begien xarmatzale, usainez burura emaile, berenaz bil-errexa, nun hesi batek inguratzen ez duen, edo arrosa bezala elorriek gerizatzen. Lorea beraz ongi erraiten zaio maite pollit eztiari, ez duen bez mutikoarekilako heraberik erakusten, nahiz hasu zenbaitetan aitamek hurbildik zaintzen duten.

Hegaztin edo xoria, aldiz, eskuaren betetko izaite bizi, bigun, beroa, kantari alai eta hegaldari xarmanta, hala beharrez belatxari edo ihiztariari ihes egiten dakiena. Itxura dezake ezin hobeki maite bozeztia, jite gurbil, bihotz beratza, maitalearen saretarat bil dadin ala ez.

Hegaztinetan, oilandak itxuratzen du gaizki ibili den neskatxa: (17)

Oilanda gazte moko fier bat gure herrian badugu:
Hegalpetik lumaño bat gaitzak galdu ez balu,
Mundu hunetan ez zen izanen harentzat aski estima.

Usoapal edo uso-tortoila aldiz erraiten zaio neskatxari, gizon gazteak bere gisa utzten duenean bakar-bakarrik bihotz-minez etsiturik:

Urtxapalaren malürra
galdüz geroztik lagüna,
Erixte da beti ere bere bihotzetik:
Ezpeitü egündano maitatü bat beizik
Maitatü bat beizik. (18)

Errexiñolet edo urretxindorrak, alderantziz, adi-arazten du ongi burutzen den amodio osoa, maitasun zorionez betea. (19)

Xori errexiñoletak ederki kantatzen.
Bazter guziak ditu xoratzen:
Bard'arratsian
Sasi tartian
Biga baziren:
~~Eder ziren~~
Eder ziren
Xarmant ziren
Manera oroz
Eta elgarren hainitz agradas.

~~Bketa~~ B_at arra zuzun eta berezia emia.
Ez mirakulu parekatzea!
Han lehen ere
Sudarik gabe
Ikasi ez balu,
Arra hura
Ez zen joanen
Sasi hartara,
Emia ez balitz jin bid'erdira!

Eta orduan berean, nuntsu zen emia
Sasi handian barna sartuia?
Ilur apaindurik
Ta lumaturik
Bere papoa,
Kukurrusta
Harroturik
Gorri zenean,
Umez orroitu zen, ber' ohantzean!

b/ ~~Arrazoin~~

Gizon gazteak maitearen biltzeko
zer arrazoin aterazten dion?

Batek etxea du gogoan, eta etxekandere baten beharra, barneko lanen kudeatzeko eta familiari alaitasun berri baten ekartzeko.

Aitarik ez dut eta ama ere zahartu:
Norbaiten beharra ere etxian badugu;
Zuk hala plazer bazindu, nahi zinduzket zu;
Ene desira zer den orai badakizu! (20)

Bertze batek bere ontasunez egiten du espantu, hetan bunk neska erosi nahi balu bezala: xipatuko diozka Amerikatarrek ekharri omen dituen urre, zilar, diamant saskitarak; bere turretan dauzkan zazpi eiherak; nunbait eraiki ditukelako jauregi ederrak, eta abar.

Adibidez: (21)

Nik badítut mortuetan ardiak artzainarekin,
Itxasoan hamar untzi beren mariñelekin,
Katalunian hamar mando zilar monedarekin.

Arkotan gizon gazteak deitoratzen du amodioak emaiten dion osasun gaixtoa, eta maitea othoizten du sendatzale bezala, urrikal dakion bere ezin-bertze hortan. Jadanik entzun ditugu auhen eta barber-galde horiek.

Zenbaitek itzul-mitzulikik gabe aitortzen dituzte beren gorputz-griñak:

Landan eder iratze:
Behi ederrak aratze;
Zu bezalako politetarik desir nuke bi seme. (22)

gutiz barka!)

4. Amodioari gertatzen zaizkon trabak

Maitasuna nolazpait sortuirik ere, aurki dezake bere bidean eragozpen eta oztopo.

Frangotan burasoek beren haurra nahi dute norbaiten ganik urrundu, odola edo arraza dela kausa. Hori entzuten dugu Agotaren kantuan.[23]

Atzo norbeit izan düzü ene aita'ametara,
Gük elkar maite dügüla haien abertitzera.
Urrunt-araztez elkar ganik fite ditin lehia,
Eta ezkitian jünta hasta agoterekila.

Osagarria ere zenbaitetan estakuru ederra dute, gostukoa ez dutenaren baztertzeko:

Aitak dio semeari:
«Utzak, utzak, neska hori:
Zendako duk etxen hori beti delarik hain eri
Utzak, utzak neska hori, gostarik ere zer nahi.[24]

Maizago fortunaz dute axola:[25]

Alaba, ago ixilik:
Ez dun jakesen beharrik:
Sakelan ez din dirurik, ez irabazteko lanik.
Nahuna bizi bararik, pilda txarrez beztiturik!

Aitamek, kantuen arabera, zer nahi pentsatzen dute beren alaba, maite duenaren ganik berezteko.

Konparazione, herritik hastantzen dute.
Huna Arbona-ko neska baten bertsoa: (26)

Ez dut nere baitarik nik Arbona utzi:
Donibane huntarat aitak nau erautzi:
Gutarteko lehia ez du hotz-arazi:
Nere griñak, maitea, zurekin dagotzi.

Lehenago komentuetan ere neskak gakotzen omen zituzten, xede beretara: aditidez, huna amoros batek bere maitearen aitari kertsatzen dion kobla: (27)

Aita jeloskorra,
Zük alaba igorri
Arauz ene ihesi
Komentü hartara!
Ari eta ez ahal da sartüren serora:
Fede bedera dügü,
Alkarri eman dügü
Gaiza següra da!

Halere ez dira burraso guziak beren haurren hain trabatzale agertzen.

Entzun ditzagun bi ama alaba elgar-hizketan: (28)

– Ama, begira-zazu leihotik ~~[illegible]~~ plazara:
Ni bezalakorikan plazan ba ote da?
Lai, lai, lai, tra la ra la ra lai!

Begiak erne ditut, bi zangoak arin
Hainbertze dohainekin ez nauke mutxurdin!
Mutikoen artean itzul-inguruka,
Gizon-gertzat baduzket dotzenan hameka.

Heldu den primaderan arropa xuritan
Ederra izanen naiz mahain saindutan.

~~Amaren erantzuna~~ → – Haurra, ahal badaite, hala izan bedi.
Lehen gure aldi zen, orai zuen aldi.

Gure eushal-kantuetan, amorosek elgarren artean maiz badituzte gora-beherak: hotz-aldiak eta bero-aldiak aldizkatzen zaizte; sendimendu goxoenen artetik guzieak aise agertzen dira idurikortasun; ez fida maitearen ele ederreri; ez sinetsi nahi, bainan halere kasu egiten haren kontra entzun erran-merraneri; hortik hasarreak eta gero berriz baketzeak: jos eta urra, urra eta jos.

Ez da harritzekorik: gure kantu zaharrak sortu ziren denboretan, gizon-gaiak eta emazte gaiak luzaz egoiten ziren ezkontzaren haidura;

Kantu batek dio :

Juramentu eginik duela bortz urte,
Holakorik ez nuen zure ganik uste...

Bertze batek :

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,
Erraiten zuela : ez dut bertze maiterik.

Hirugarren batek :

Nik hitza atxiki dut zazpi urtez geroz
Ezteztun huni beha egun ta gau oroz...

Bortz-zazpi urte hanitxko da. Artean gauza frango pasa zitaken, eta elgar erasiatzeko parada hainitz. Huna ahaire ttipi bat:

– Prima eijerra,
Zütan fidatürik,
Hanitx bagira
Oro tronpatürik!
Enia zirenez erradazü bai ala ez ;
Bestela banoa
Desertiala nigarrez urtzera!

– Desertiala jun nahi bazira,
Arren zoaza
oi, bena berhala!
Etzitiala jin harzara nigana
Bestela gogua
Dolütüren zaizü, amorio gaixua! (29)

– Nitan etsenplü nahi dianak hartü
Ene malürrak parerik ezpeitü
Xarmagarri bat nik beinian maitatü
Fidatu,
Tronpatü...
Sekúla jagoiti ikusi ezpanü!

– Mintzo zirade arrazu gabetarik
Eztüdala nik zure amodiorik
Zu beno lehenik banian besterik
maitterik,
fidelik,
Honez eztereitzüt egiten ogenik.

Entzun dugun kantu hortan, bertze askotan bezala, leialtasuna, fideltasuna da bereziki aipu.

Fideltasuna ez dute frantsesek gure euskaldunek bezala ulertzen. Frantsesek emazte ezkonduari galdegiten diote fidel egoitea, eta heien arrangura handia da ezkondu ondoan adarrik ez ukaitea. Gure herritarrek aldiz eman hitzari, amodio hitzari fidel egoitea neskatxa bati galdatzen diote.

Oharpen hori lehentze aipatu duena da Peillen jauna, mila arrazoinekin.

(16 ~~bis~~ ter)

Zonbait aldiz entzuten da neskatxa bere buruarekin ezbaian ari, bi gizonen artean batto hautatu beharrean: (30)

Ai, ei, ai, ei, ai, eta
han da dolorea!
Bi maite ükhen-eta
etxakin zuiñ hauta:
Batek dizü txapela,
bestiak bonéta.
Txapeldün hori düzü
oi ene bihotza!

Bertze batzuetan mutikoak lehia gehiegi erakusten du, bere maitearen ganik fagore kutun batzu ardietsi nahiz, eta aditzen du erantzun: (31)

Hire ahalkiak badik bere malezia.
Uste düka nizala herenegün sortia?
Gaixki enplegatü dük hik hire mihia
Eta izpiritia:
Ni nahi naianak
Elizatik landa ükhenen dik eskia.

Bertze batek berdintsu dio:[32]

> Diozun bezala maite banuzu,
> elizaz feda nezazu;
> elizaz feda nezazu eta gero zurea nukezu.

Kantuetan mutikoaren ganik jalgi ditazke maitearen bortxatzeko mehatxu gogorrak ere, nahiz neskatxak badakien nola deplauki ihardok.

Zer nahi den, eztabada amoros horietaz bertzerik gertatzen zitzaien noiz behinka bikita edo buruz-buruen harietarat, kantore zahar batek salatuko digun bezala:[33]

> — Mendiak bete belarrez, begitarteak nigarrez:
> Lan eginaz urriki dut, bainan protetxurikan ez!
> Orai hemen nagozu sabeletik minez.
> — Ene maitea, zer duzu? zerk holakatzen zaitu zu?
> Ez da denbora luzia zirela penetan sartu:
> Plazeraren ondotik, desplazera duzu.

Ogiak dira burutu, artoak ere jorratu...
Primaderan egin lana udazkenerat agertu:
Ene maiteñoari... gerria loditu...

Oraino gizon gazteak bere aitasuna aitortzen duelarik, paso... Bainan ez bide da beti hala gertatzen *Arrosa buketaren kantuak* salatzen digunaz:[34]

Arrosa buketa bat uztailean sorturik,
Egorri izan nion jaun hari goraintzi,
Landarea nuela haren baratzetik;
Otoi begira zezan nitaz orroiturik.

Uste izan bainuen atsegin zukela
Bere landaretikan ukanik buketa,
Gibelat itzuli du, nahi ez zuela,
Landarerik emanik orroitzen ez dela.

Lili ederra, ongi etorri zarela!
Nik ez zaitut utziko jaun harek bezala.
Freskorik bai haziko nere bularrean,
Deitzen zaitudalarik haren izenean.

5 Ausarkeriak

Ohartu zirezte zoin polliki adi-arazten diren gauza horiek oro, urrundik bezala, hitz-erdika. Maitalen arteko lizunkeriak ez dira ardurenean xeheki aipatzen, salbu eta laidozko edo trufazko kanta batzuetan, tobera-munstra eta holako nausa-bideen karietara. Etxahun Barkoxe-ren obretan kausi ditazke zenbaitzu: orduan ere sinbolo batzuez erdi-estaliak daude ahalgekizunak, arraina, aingira, hegazteren-isatsa, hegalpeko luma aipatzen direlarik. Gehienetan zirtoen jeinu jostagarriak haizatzen bezala ditu esondatu zarpailkeriak, hego xuriak hedoi beltza ohiltzen duen bezala.

Nork ez du ezagutzen Etxahun zaharraren lumatik ateraia den Maria Solt eta Kastero-ren ipuina (35)?

Maria Solt eta Kastero,
Bi amoros zahar bero,
Hirur-hogei-hamarna urtetan hartu die amorio
Kastero jelostu gero, Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solt dua nigarrez
Izorra dela beldurrez
Barnets-Bordako anderiak kontsolatü dü elez:
Emazte zaharrik ükhüpü agitzen eztela ez..

Maria Solt-ek arrapostü :
– Santa Elisabet badüzü :
Saintü zahar bateganik üküpü agitü düzü ;
Mastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü

– Mastero ez düzü saintü,
Sobera burhauli düzü
Elizalat juan eta taharnan egoiten düzü
Mastero dena galik saintü, Maria Solt, antzü zira zü.

Horrek ez du erran nahi ez dela euskaraz aurkitzen ahal, hantu gizen gordinagorik. Egungo egunean ~~ahantziak~~ ahantzizeak dira. Lehen, bakar batzu baziren Frantziako Kazernetan usatu kantore zikinetarik yuti edo aski aldatuak. Ez dut uste behin ere publikatuak izan diren. Funtsean, ez zuten merezi ere, ene gostuko.

Ezagutuena zen Baxenabarreko xoko batzuetan hitz hauiekin hasten zena : "Zer ari zira, amaso, hola beti guri so ? " Kondatzen zuen nola atso baten baratzean eta haren leiho-pean bi nesha-mutiko ~~[illegible]~~ parekatzen ziren : bertsuetan ez zen poesia izpirik. Ez dut haren kopiarik atxiki. / Ogi-egile andere baten kontrako bertsu batzu irakurriko dauzkitzuet, barkamendu galdeginez heien ozarkeria gatik. (36)

Halere, ez baita hemen umerik, otsengtu gisa

Bolanjersa edo andere okina

Mutikoak — Guti gostarik bildurik, sosak baditu okinak:
Baditu, aitortu daizkit, ez du lotsarik kokinak.

M. neskari — Diru hoik nundik dituzu, anderetan xarmantena?

neskak — Meraren moltsa joritik, usu heldu baita hunat.

Soldado ergelak ere jin dira tabe huntara
Bainan gerlariak baino nahiago dut jaun mera.

Jaunskilek ele politez nahi nindulen xoratu;
Ele politek ez dautet bihotza nehoiz hunkitu.

Fraile bat ere jin zautan lili bukheta eskuan;
Bainan lorez aseltzeko ez nintzan sortu munduan.

mutikoak — Ni, anderea, ez nuzu ez jaun mera, ez soldado;
Ez jauntto, ez eta fraile, bainan xoilki okin bero.

neskak — Erran duzu « okin bero »: zer diozu hitz horrekin?

mutikoak — Anderea, jitez nuzu jende amorosen okin...

neskak — Ez dut nehoiz egun arte hitz bitxi hori entzuna:
Nola ofizio hortan daramazu zure lana?

mutikoak — Lagun har banindezazu, artoski orra nezake
Zure labore maitea, segur kontent baitzintazke.
Gauaz ere hor nindauke beti zure zerbitzuko,
Labehaga esku-pean behar orduz labaltzeko.

neskak — Zuk bederen badakizu ozarki adi-araztea
Ene bertute flakotik zer duzun igurikatzen.

Halere nahiago dut ene betiko jaun mera,
Ixil-ixila baitaki nola ni diruz ohora.

Mutikoak aberatzean — Hona nola bolanjertsa aseltzen zaikun ohorez
Ohastaturik nitzaio kolpez itzuli bizkarrez!

Ikizi onak biak ere!

1 Orroit gaiten Bilintx-ek ere, dama batek heztertuirik, nahi izan zuela bere buruaz bertze egin, arroka batetik itsasorat jauzi eginez.

6 Despegidak

Horiek hola, kantu hainitzetan ikusten dira maiteak, elgar ezin adituz, elgarrelarik berexten, nigarra begian edo hasarrez. Huna nola Milafrangako neska batek despegitzen duen bere ohiko gizon gaia: (38)

Arrosak eder botia, ederrago du lorea:
Lehen bertzetan ibili-eta, orai niri gortea?
Zoazkit begien bistatik, parabolez betea!

Holakoetan, neska balinbada baztertua, herraz eta gorrotoz urruntzen da, mendekatzeko xedearekin, mutikoari lore puzkindaluak igorri behar badiozka ere. Gizona vidalia izan bada, zenbait aldiz lehen egunetan mindurik dago, hiltzerat/ari dela iduri. + Bainan gizon gehienek ez dute burua galtzen, ez eta maite izanaren alderako malezia handirik atxikitzen.

Arrunztarrak kantatzen zuen: (39)

Amodioa zoin den zoroa mundu guziak badaki;
Nik maiteño bat izaki-eta, bertze batek eramaki:
Jainko maiteak gerta dezala enekin baino hobeki!
Hori da hori, karitatea!

7 Ezkontza

Beharrik, ez dira amodio guziak hausten, ez itzaltzen. Gehienak ezkontzarat heltzen dira, lege den bezala.

Bainan gazteak ezkonduz geroztik, gure euskal kantuek ez ~~dut~~ dute gehiago heien amodioa guti baizik aipatzen.

Izaitekotz, eztaietan errespetu handirekin kantari on batek jaun-andere esposak goresten ditu, Ohitt, Ligueit edo Etxahun Irurikoaren bertsu famatu batzuez.

Huna Ziberon maizenik emaiten diren kobletarik zenbait. (37)

Oihan beltxian zuñen eder den osto berdia jeikiten:
Han entzün dütüt egün goizian txoriak kantüz erraiten,
Bi bihotz gazte amodiuak egün dütila jüntatzen:
Boztariotan sartü niz eta orai hasten niz kantatzen.

Espus-espuser, ororen partez, uhure eta goraintzi:
Egün düzien amodiua bizi zideno ez ützi!
Nahigabetan parte har eta plazerak ez berantets:
Irus izate ederrenian nahi dügü ziten bizi.

Espus jaunari ele bat bera, bürian dezan edüki:
Lagüntto horri amodiuaz beti bihotza eraiki;
Zaharraguer uhure eta haien abiser jarraiki,
Familiako bake hun baten gozatzeko alkarreki.

Espusa gazte baten erhian zuiñ eijer den erraztüna!
Harek beitio mutil gaztier: « Etzitaiela ingana:
« Senar hun baten edireiteko egün ükhen düt fortüna,
« Hari emanik bihotza oso, bai eta gaztetarzüna. »

2
11
1
24
3
5
~~130 ffr~~

M. Lorent (24)
J. Welsch

1935, Bi~

Bidart Eau minérale Mer. Montage
La fuite stabilité hydrominérale de la côte basque
au Mr. illustr. 15 cm.